


**Ongi Bizitzeko
Unibertsitatearen eta
Ekonomia Sozial eta
Solidarioaren Curriculum
Osorako Kanpainaren
sistematizazioa eta
mapaketa**



**Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Curriculum Osorako
Kanpainaren eta Ongi Bizitzeko Unibertsitatearen
sistematizazioa eta mapaketa**
2024ko otsaila



**CAMPAÑA POR UN
CURRICULUM GLOBAL
DE LA ECONOMÍA
SOCIAL SOLIDARIA**

curriculumglobaleconomiasocial@gmail.com

- Ikerketa eta Testua** Quetzalli Ocampo Quinto
Melva López Nazario
Alán López Portillo Barroso
Claudia Yadira Caballero Borja
multitruemukemixiuhca@vida-digna.org.mx
- Irudiak** Carlos Daniel Mo
*[https://www.blogger.com/
profile/07840100803038627180](https://www.blogger.com/profile/07840100803038627180)*
- Argazkiak** Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Curriculum
Osorako Kanpaina
- Itzulpena** OLISTIS, SCCL



Edukia

1.

Eskerrak

02

2.

Aurkezpena eta
metodologia

04

3.

Testuinguru orokorra

06

4.

Zer da ESSCOK?

12

5.

Kronologia

16

6.

Errizoma

18

7.

Esperientzien mapaketa

20

8.

ESSCOKko partaideek
garrantzitsutzat jotzen
dituzten gaiak

22

9.

Aurrera begira

26

1.

Eskerrak

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Curriculum Osorako Kanpaina (ESSCOK), *Campaña por un Currículum Global en Economía Social y Solidaria* gaztelaniaz, partaideen borondatezko lanean oinarritutako ekimena da. Ez du funtzionamendurako finantzaketarik jasotzen eta osatzen duten erakundeek ekarpenari esker jarraitzen du martxan. Horrela, sistematizazio eta mapaketa hori egiteko Finantzaz Haratagoren, Elkarcrediten eta Eusko Jaurlaritzaren babesak izan zuten.

Eskerrik asko babes preziatu horrengatik.



*Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Curriculum
Osorako Kanpaina*

2.

Aurkezpena eta metodologia

Sistematizazio horrek hainbat helburu ditu. Lehenik eta behin, proiektuan parte hartu duten erakundeek ekinez eskuratu dituzten jakintzak transmititzea. Horrek barne hartzen ditu ESSCOKn bere zazpi urteko ibilbidean parte hartu duten erakundeek; zein kanpainak mamitu duen prozesu bakarrean, Ongi Bizitzeko Unibertsitatean (OBU), *Universidad del Buen Vivir* gaztelaniaz, parte hartutakoek ikasitakoa. Bigarrenik, erakunde horietako partaideen jakintzak entzutea eta balioestea interesatzen zaigu. Pertsona horiek ekonomia sozial eta solidarioaren (ESSen) arloan konpromiso handiko militante dira eta beraz, ongi bizitzeko moduen bila ari dira arduraz. Laburbilduz, bide horretan lortutako eskarmentua aprobetxatzea espero dugu, lorpenak, zailtasunak eta esperientziarekin garatutako estrategiak ahalik eta modu argienean partekatzeko. Helburuen artean zeuden, baita ere, aurrekariak eta mugarri garrantzitsuekin kronologia bat osatzea, eta ESSCOKren eta OBUren historian izandako esperientzien mapaketa egitea.

Aipatutako helburuak lortzeko, hainbat eduki sakonki gainbegiratu genituen: txostenak, aldizkariak eta aurrez egindako mapaketak irakurri genituen; bilkuren eta hileroko saioen grabaketak entzun genituen; ESSCOKren/OBUren webgunean eta sare sozialetan zehar nabigatu genuen. Ikerketa horretan garrantzi handia izan zuten ESSCOKren eta OBUren sortzaile edo partaide aktibo ziren 26 pertsonari egindako elkarrizketek. Asko ikasi dugu haiei esker eta guri eskaini ziguten denbora eta arreta zinez estimatzen dugu.

3.

Testuinguru orokorra

“Ekonomia” esatean ia instintiboki dirua, finantza-egoera edo Estatua etortzen zaizkigu gogora. Baina ekonomia finantza soiletatik, bankuetatik, aurrezkietatik edo zorretatik haratago doa, izan ere, edonon dagoen jarduna da. Gutxitan erlazionatzen dugu emozioen eta ekosistemen ongizatearen gabeziara moldatzen den ekonomia afektiboarekin, nahiz eta gabezia horiek gure gizartearen narriaduraren kausa garrantzitsu izan. Ondorioz, hau galdetu beharko genioke geure buruari: nola eta noiz ikasten dugu ekonomia? Dimentsio material eta afektiboari balio bera ematen erakusten digute? Ekonomia mota bat baino gehiago al dago? ESSCOKren eta OBUren ustez, horri buruz hausnartu behar da eta jakintza horiek haur, gazte eta langile oroaren formakuntzan txertatu.

Ezin da bizitza helburu duen hezkuntza berri bat planteatu ez bada kontuan hartzen gaurko haur eta gazteak partaide dituen ekonomia denon etorkizunerako erabakigarria dela. ESSk proposatzen dituen alternatibak behar-beharrezkoak dira. Belaunaldi berriei erreparatu baino ez dago: oso gaztetatik daude gailu teknologikoei konektatuta, mundu eta gune digitaletan adimen artifizialarekin batera bizi dira. Gainera, belaunaldi horietako kide batzuk enpresa transnasionaletako banatzaile dira; edo delitu-taldeentzako lan egiten dute, droga-trafikoan adibidez; edo plaza edo titulu bat lortzeko lehian aritzen dira lanerako bizitzera bideratzen dituzten hezkuntza-sistemetatik kanpo ez geratzeko. Horrela, sistema horiek geroz eta gehiago mozten dira eta tokiko eta munduko sistema politikoari onura egiteko diseinatutako karrerak eta ikasgaiak izaten dituzte.

Zergatik ez digute haurrak garenetik ekonomia irakasten? Edo garrantzitsuagoa dena: nola irakatsi eta ikasi beharko litzateke ekonomia gaur egun? Baina, ez modernitateak indarkeriaz inposatzen digun ekonomia, bizitzarako ekonomia baizik, partekatzeko, maitatzeko eta bizitza zaintzeko balio duena. Nola berrezi gaitzke jada langile, akademiko, enpresari eta politikari garen helduok? Nola itzul diezaiekegu irakasle-rola aiton-amonei, komunitateetako jakintza zaharraren jabe direnei, nekazariei, arrantzaleei, basoen zaindariei, sendalariei, gurasoei eta seme-alabei? ESSn denok osatzen ditugu arazoa eta konponbidea.

ESS osatzen dugunok ulertzen dugu aurrez aipatu ditugun bizitzarako jarraibideak arduraz garatu eta gauzatu behar direla, urterik urte jardunbide komunitarioak burutuz. Horrela, gaur egun argi dugu:

- 1)** Planeta bakarra besterik ez dugunez, zaindu egin behar dugula oraingo eta etorkizuneko belaunaldientzat;
- 2)** Irakaskuntza-/ikaskuntza-komunitate anitzak gara eta antolatzeke modu ezberdinak ditugula;
- 3)** Lurralde geografiko eta hizkuntza ezberdinetatik elkarrengana hurbiltzen gara bizitzako esparru guztietan ongi bizitzeko.



Elkarlana eta alternatiben sorkuntza

ESSCOKk gorputz-, gizarte- eta ingurumen-osasuna lortzeko kalitatezko hezkuntzarako giza eskubidea (EESKNI, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna) eta Nazio Batuen Erakundeko 2030 Agenda kontuan hartzen ditu. Abiapuntu horietatik eta ikuspuntu dekolonialetik sortzen da, hain zuzen, ekonomiarekin lotutako curriculum ofiziala eraldatzeko beharra. Xedea ekonomia, batez ere, denon etxea zaintzeko modu gisa ulertzea da, jatorrizko komunitateak abiapuntu hartuta bizitokia zaintzen duen jardun gisa.

Horrela, ESSCOKren esperientziak, jakintzak eta erremintak garatzen dituen sarean hartu-eman globala dago. Harreman horren bidez ekonomia, kultura eta hezkuntza arloetako bestelako hautabideak eraikitzen dira, pixkanaka sistema hegemoniko kapitalista, arrazista, eurozentrista, patriarkal, epistemizida eta ekologismoaren aurkakoaren menpekotasunetik askatzeko.

Mundu-mailako krisialdia bizi dugu gizartearen eta ingurumenaren arloetan. Krisialdi horrek arreta galarazten digu, indibidualizatu eta zapaldu egiten gaitu. Gainera, gure kontrola nahi duen erregimen baten barruan gaude; kontrol kulturala, politikoa zein ekonomikoa. Baina dagoeneko munduan milaka pertsonak egin diote planto egoera horri. Planto botere ekonomiko hegemonikoari, botere militarri, hidrokarburoei, sentitzeko gaitasuna duten izakien tratu txarrei, mugei, eskola ofizialari, biopirateriari, estraktibismoari eta gaurko mundu globalizatuaren kolonialismoari.

Arazo horien jatorria eta konponbide posiblea identifikatzen ditugu, hain zuzen, Ongi Bizitzeko Unibertsitatean, Vida Digna erakundeak, komunalitatean eta ESSko beste antolakunde eraldatzaile eta komunitario batzuetan. Helburu hori lortzeko, aspaldiko jakintzez eta hizkuntzen arteko distantziak gaindituz komunikatzeko gaitasunaz baliatzen gara.

Dokumentu honetan hainbat pertsonaren ikuspegia dago gai hauei buruz: Ongi Bizitzeko Unibertsitatea, ESS, herri-hezkuntza, gizarte-justizia, feminismoa, agroekologia, osasuna eta norberaren zaintza, lurraldea, ondasunak eta jakintza partekatuak. Horretan bat egiten dugu edo saiatu egiten gara. Aurrez aurre zein birtualki elkarri entzunez ESSaren curriculum global berri bat eraikitzeko. Curriculum denontzako hezkuntza burujabe oinarritu nahi dugu eta bertan ESSrako alternatiben analisiaren eta hausnarketaren emaitzak txertatu. Hori guztia ikasleei irakatsiz ikasteko eta komunitate berriak sustatzeko asmoarekin, sortu berri den hezitzaileen mugimenduaren testuinguruan.



Gizarte- eta ingurumen-krisialdia.



Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Curriculum Osorako Kanpaina

ESSren Curriculum Osoa kanpainan parte hartzen dutenek eskain dezaketenaren arabera eraikiko da. Curriculumaren helburua ikasgeletan eta gizartean aldaketa sor dezaketen alternatiben oinarria ezartzea da eta, horrela, urritasuna eta kontrol politiko eta ekonomikoa sortzen duten indarkeriazko sistematik askatzea.

Badira bestelako ekonomia batzuk, zeintzuetan komunitateek gizartean bizitzeko modu berri inspiratzaileak eraikitzen dituzten. Kanpainaren barruan ere ESSk zabaltzen dituen ideien hazi den ondarea osatzen da egindako jardueren (mahai-inguruen, saio birtualen, foroen, erreportajeen, elkarrizketen eta argitaratutako materialen) memoriekin. Memoria horiei esker sortu ahal izan genuen ESSren ideiak pertsona gehiagorengana hurbiltzeko asmoa duen sistematizazio hau. Horregatik, ESSCOK osatzen duten pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu.

4.

Zer da ESSCOK?

ESSCOK ESSko hainbat hezkuntza-kolektibok hegoalde globalean martxan jarri zuten hezkuntzarako gizarte-ekimena da. Gaur egun kontinente guztietako herrialdeetako sare nazional eta internazionalak osatzen duten sarea da. Kanpainak bostehun erakunde baino gehiago identifikatu ditu. Erakundeak askotarikoak dira, haien artean daude munduko herritartasuna, bakea, finantza etikoak, elikagaien eta energiaren burujabetza eta herrien artean ongi bizitzeko bideak lantzen dituzten gizarte-erakundeak, gizarte-mugimenduak, unibertsitateak eta eskolak.



Argazkia *Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Curriculum Osorako Kanpaina*

ESSCOKren helburua, alde batetik, munduan dauden ikasteko eta ezagutzeko modu anitzak ezagutaraztea da eta, bestetik, elkarlanean alternatiba ekonomikoak eraikitzea. Horretarako hilero bilerak egiten dira, non erakundeen esperientziak partekatzen diren. Aldi berean, ESSCOKko partaideek, hainbat foro, kongresu eta ekintza egiten dituzte kultura eta hezkuntza mota ezberdinek dakarten aniztasunarekin.

Zazpi urte hauetan, kanpaina lau ardatzek zeharkatu dute: printzipioen gutunak, herri-kontsultek, esperientzia-mapek eta Ongi Bizitzeko Unibertsitateak.

Printzipioen gutuna

ESSCOK sortu eta berehala idatzi zen gutun horrek mugimenduaren balioak biltzen ditu. Hemen irakur daiteke: <https://curriculumglobaleconomiasolidaria.com/espanol/carta-de-principios/>.

Herri-kontsultak

Herri-kontsultak pertsona guztien iritzia entzuteko eta iritzi horiek mundu-mailako topaketetara eramateko baliagarriak dira. 2022an elkarrizketatu ziren 2.794 pertsonen batez ere azpimarratu zuten curriculuma feminista, dekoloniala, ez-patriarkala eta ez-kapitalista izan behar zela; eta hezkuntza formaleko etapa guztietan txertatu behar zela, aurrez aurreko ekintzetan zein ikasgela birtualetan, ekimen praktikoekin batera. Hari horri jarraituz, beharrezkotzat jo zuten curriculumak Ekonomia Eraldatzaileen Munduko Foro Sozialarekin eta Bestelako Herri Ekonomia Sozial Solidarioarekin eta Nekazarien, Indigenen eta Afrikarren Ondorengoan Bestelako Herri Ekonomia Sozial eta Solidarioak Garatzeko Mugimenduekin loturak edukitzea. Beste gai batzuen artean finantza etikoak, agroekologia, energiaren eta elikagaien burujabetza lantzea proposatu zuten, eta lurralde bakoitzak bertan irakatsi beharrekoa eztabaidatzea. Gai horiez gain, komunitateen epistemologiak aitortu behar dira, esate baterako auzoetan eta herrietan esperientziaren bidez bereganatutako jakintza zaharrak. Adierazpen-ezagutzez haratago, balioen jakintza, prozedura eta praktika sustatu nahi dituzte horiek aplikatzen dituzten pertsonen hezkuntza-maila edozein dela ere.

Esperientzia-mapa

Bi mapa garatu dira Socioeco plataformaren laguntzarekin: batek *Ongi bizitzeko hezkuntza-esperientziak, beste mundu posible baterako jardunbide eraldatzaileak* biltzen ditu (https://www.socioeco.org/expeduca_es.html) eta besteak ESSrako pedagogia-erremintak (https://www.socioeco.org/pedago_es.html).

Heziketa eraldatzailean jarduten duten hainbat pertsonak haien esperientziak plataforma digital batean gordetzen dituzte. Plataformaren bidez, komunitatearentzako erreminta baliagarri diren esperientzia horiek parteka daitezke eta ekonomia-prozesu solidarioetan lanean ari direnak saretu.

Lan honen bidez mapa eguneratu eta aberastu nahi dugu. ESSCOK etengabe hedatzen ari dienez, badakigu eguneraketak egiten joan beharko garela.



Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Curriculum Osorako Kanpaina

Ongi Bizitzeko Unibertsitatea (OBU)

OBU Ekonomia Eraldatzaileen Munduko Foro Sozialean (EEMFSean) sortu zen, Bartzelonan 2020ko ekainean. Urriaren 4an aurkeztu zen Kataluniako Ekonomia Solidarioaren Azokan (FESCn) *Aceptamos el Reto* proiektuko teknologia, zientzia eta ezagutzarekin lotutako kategorian. Ondoren, era ofizialean hasiera eman zitzaion 2021eko urtarrilaren 24an, Munduko Foro Sozialean. Proiektu hori *Didáctica del Buen Vivir, conversaciones desde el aula* izenekoarekin hasitako prozesutik dator. Irakatsitakoari eta ikasitakoari buruz hausnartzeko espazio bat da eta Ongi Bizitzeko Unibertsitatearen ikuspegia du, hau da, dekolonizazioa eta kulturartekotasuna ditu oinarri eta disziplina zehatzez haratago doa.


OBUren helburua printzipio dekolonial, kulturantzun eta feministekin, eta *ESSren Lurraldeen Kurrikulumen Aldeko Erabakia*-ri jarraituz formakuntza- eta ikerkuntza-prozesuak eraikitzea da. OBU aniztasun epistemologikoa dago, izan ere, abiapuntutzat du lurraldeetan ikasteko eta ezagutzeko modu ugari daudela eta munduko ezagutza-sistema guztiak baliozkoak direla aitortzea. Horregatik guztiagatik, denok izan gaitezke irakasle eta ikasle hauek bezalako gaiei buruzko hezkuntza kritiko eta eraldatzaileen: dekolonialtasuna; desazkunde ekonomiko; ESS; feminismoa; arrazakeriaren dekonstrukzioa; bakearen kultura; antropozentrismoa gainditzea; naturaren errespetua; kapitalismo suntsitzaileak sortutako katastrofe klimatikoaren ondorioak arintzea; ekosistemen birsorkuntza; eta zientziaren, artearen eta espiritualtasunaren arteko, emozioaren eta arrazoiaren arteko, eta jakintza akademikoaren eta zaharren arteko harremana.

OBUren laneko esperientzien artetik nabarmentzen dira ikasgela biziak, Gizarte Zientzietako Latinoamerikako Kontseiluaren (CLACSOren) lankidetzarekin garatutako Ongi Bizitzeko Katedra Irekia, eta Herri Ekonomia Eraldatzaileak Doktorego Alternatiboa.

5.

Kronologia

Atzera begiratzeak, mugarri garrantzitsuak oroitzeak, ekimenen bat sortu zutenei eskerrak emateak geure historia propioa sortzen joatea ahalbideratzen digu, baita geure mugimenduen memoria babestea eta etorkizunaren alde egitea ere. Historia era ugarian kontatu daitezkeen jakinik, ESSCOKren zazpi urteen kronologia egin dugu, gertakari esanguratsuenetako batzuk ezagutzeko. Memoria- eta aitortze-eraketak bat baino ez da.




ESSCOKren kronologia. Gertaera esanguratsuk.

6.

Errizoma

Herri indigena askoren filosofiaren arabera dena elkarren artean lotuta dago, denbora/espazioa sare bizi bat da eta bertatik energia eta informazioa etengabe mugitzen da gauzen naturak bere burua erregulatzen duen ordena baten menpe. Errizomaren metaforaren bidez ulertzen dugu pertsonen arteko loturak, ekimenak eta topaketak ez direla linealki gertatzen, baizik eta era paraleloan lurralde ezberdinetan eta uneren batean berriz ere bat egin dezaketela. Errizoma elkarren artean konektatutako kimu biziz osatuta dago. Kimu horiek elkarrekiko dependentzia dute eta ez daude era zentralizatuan antolatuta. Era horretan, kanpainaren talde edo sareetako gertaera edo prozesuak ez daude hierarkia zentralizatu baten menpe; horren ordez, unean-uneke baldintzen eta energiaren bidez garatzen dira.



ESSCOKko errizoma 2016tik 2024ra. Geure artean loturak osatzen ditugu.

7.

Esperientzien mapaketa

Herrialde anitzetan aurki daitezke ESSren bidezko alternatibak. Ondorengo maparekin sistematizazio horretan erregistratutako ekimenak aurkeztuko ditugu, nahiz eta badakigun kategorizazio guztien izena biltzeko esfortzuak esfortzu, ESSCOKren eta OBUren helmen geografikoa neurtezina dela. Lan guztia egindako tokitik haratago dauden espazio fisiko eta birtualetara hedatzen da eta erregistro horretatik kanpo geratu diren erakunde eta pertsona gehiagorengana iristen da.

ESSCOKn 351 partaide identifikatu ahal izan ditugu, baina badakigu etorkizuneko mapaketetan lekukotasun gehiago biltzen joango garela. Erakundeen parte-hartzea askotarikoa da, badira kanpainaren ekintzetan oso aktibo diren erakunde, sare eta unibertsitateak eta kanpainaren aldeko edo aliatu diren beste batzuk.


351 partaide horien artean unibertsitate ugari daude, gutxi gora behera kopuru horren % 40 dira. Unibertsitate horiek ESSren inguruko ikastaroak, diplomaturak edo karrerak dituzte eta haientzat ezinbestekoa da ESSCOKrekin eta OBUrekin konektatuta egotea tokiko esperientziaz, metodologiaz eta jakintza berriz hornitzeko. Unibertsitateen ehuneko altu hori kanpainaren izaerarekin bat badator ere, nabarmentzekoa da kanpainaren partaide gehienak, % 58 baino gehiago, erakundeak, kooperatibak, sareak, gizarte-erakundeak eta mundu-mailako loturak dituzten plataformak direla.

Jasotako erakundeak kontinente guztietako berrogei herrialdetan zehar sakabanatuta daude.

- **Latinoamerika eta Karibe:** Argentina, Mexiko, Brasil, Kolonbia, Txile, Ekuador, Bolivia, Costa Rica, Honduras, Peru, Puerto Rico, Uruguai, Kuba, Paraguai.
- **Ipar Amerika:** Kanada eta Estatu Batuak.
- **Europa:** Frantzia, Espainia, Portugal, Italia, Erresuma Batua, Suitza, Alemania, Belgika, Grezia, Finlandia, Txekia, Herbehereak eta Polonia.
- **Afrika:** Kenya, Hegoafrika, Maroko, Benin, Burkina Faso, Etiopia eta Tanzania.
- **Asia:** Txina eta Filipinak.

Nazioarteko eta kontinentearteko 26 erakunde identifikatu ditugu. Erakundeen % 48 baina gehiago Latinoamerikan eta Kariben daude, Europan dago hurrengo ehuneko altuena, % 34. Afrikan eta Asian ikusi dugu partaidetza gutxien, bien artean % 5.

Kontuan hartu behar da badirela kokapen zehatzik ez duten erakundeak ere, nazioarteko sare, foro edo plataforma direnak; eta beraz, ez direnak kokapenaren arabera analisiari kontuan hartu.



Erregistratu eta imajinatu dugunetik haratago iristen gara.

** Mapaketa horretan zehaztutako informazioarekin erakundeen direktorio bat osatu dugu ESSCOKko kideek kontsulta dezaten.*

8.

ESSCOKko partaideek garrantzitsutzat jotzen dituzten gaiak

Kideei egindako 26 elkarrizketa sakonetan ESSCOKn eta UBVn landu beharreko gaiei buruzko iritzia galdetu genien. Hurrengo irudian gai horiek ikus daitezke: zenbat gehiagotan aipatu, orduan eta tamaina handiagoarekin irudikatu ditugu.



Gure adierazle diren hitzak.

Talde edo erakunde bakoitzak funtsezko lana egiten du bere lurraldean. Zelularen metaforarekin irudikatu daiteke hori, bere kabuz bizi daitekeen unitaterik txikiena baita. Zelulak bezala, funtzio zehatzak betetzen dituzten zatiz osatuta daude taldeak eta azken horien kasuan, zati bakoitzak berariazko gairen bat lantzen du. Gainera, zelulen gisa, elkartu egiten gara ehunak eta bizi-egitura konplexuagoak osatzeko.



Ongi bizitzea lortzeko gaiak.

Parte hartu duten erakundeek lantzen dituzten gaiak oso antzekoak dira. Hala ere, erakunde bakoitzak gai horiek bere testuinguruaren arabera ulertzen eta lantzen dituenez, gaitasunak eta zailtasunak kasuan-kasuan azertu behar dira.

Erantzunak talde hauetan banatu ditugu: herri-hezkuntza, ESS, feminismoa, agroekologia, ondasun partekatuak, Ongi Bizitzeko Unibertsitatea, lurraldea, komunitatea eta hegoaldeko epistemologiak.

9.

Aurrera begira

Egindako ibilbideari, sustatutako proiektuei esker eta sendotutako harremanei esker, ESSCOKrekin nola jarraitu pentsa dezakegu orain. Egindako sistematizazioan funtsezko galdera izan zen hau: ESSCOKn eta OBUen etorkizunerako zein estrategia ezarri behar dira? Beheko testua lortutako erantzunetatik abiatuta idatzitako hausnarketa bat da.

Zazpi urte hauetan talde partaideen artean nazioarteko hatu-emaneko sare bat osatzea lortu dela ikusi dugu. Sarearen aniztasuna eta hedapena handitu egin da; harreman berriak sortu dira eta, ondorioz, erronkak handitu egin dira eta proposamenen eta hartu-emanen aberastasuna ere bai. Horrela, ESSCOK nazioarteko ESS sareen artean erreferente bilakatu da eta jarraitzaile eta partaide aktibo asko lortu ditu. Orain eragin handiagoko mundu-mailako mugimendu bihur daiteke, batez ere hezkuntza-erakundeetan eta nazioarteko antolakundeetan. Kanpainaren helburua hezkuntza ofizialean ESSren jakintzak errekuaratzea da, hainbat gradu eskaintzen diren ikastetxeetako egitura aldatu eta haietan ESSren ezagutzak eta esperientziak ezagutarazteko.

Aniztasunaren erronka

Etorkizuna anitza da. Elkar ulertzeko esfortzua beharrezkoa da ESSren kontzeptu unibertsala gainditu eta testuinguru bakoitzean zer esan nahi duen ulertzeko. Horretarako homogeneousotasuna alde batera utzi eta dibertsitatean murgildu behar gara. Esate baterako, kontinenteen arteko zubiak sakontzeko era bat izango litzateke hausnartzea Latinoamerikako errealitatea European ulertu ahal izateko moduan transmititzeko erei buruz eta lortzeak izango litzuzkeen ondorioei buruz. Ezinbestekoa izango da, halaber, Asia eta Afrikara hurbiltzea, eta hainbat kulturarekin harreman gehiago izatea, adibidez herrialde arabiarretako kulturarekin.

Birtualtasunaren eta lurraldearekiko loturaren erronka

Mugimendu handi horrekin lotutako hainbat erronka ditugu, besteak beste mundu-mailako harreman birtualaren onurak mantentzea. Harreman horren bidez hainbat kontinentetako esperientziak biltzen dira eta, aldi berean, loturak mantentzen dira lurraldearekin, tokiko eraldaketarekin eta eraldaketa pertsonalarekin. Alde batetik, tokiko talde askorentzat erronka da era jarraituan egiten diren bilera birtualetan egoteko denbora eta baliabideak lortzea; mundu-mailako erakundeentzat edo unibertsitateentzat, berriz, erronka lurraldearekin harremana mantentzean datza.

Mundu-mailako harremanek badute zailtasun bat: nola aztertu askotariko gaiak, testuinguruak, hizkuntzak eta kultur-hurbilketak esperientzia indibidualen egiazkotasuna eta hausnarketaren sakontasuna galdu gabe? Askoren iritziz, harremanaren epeltasunari eta enpatiari esker lortu ahal izan da horren kide anitzen arteko bizikidetzat atsegina.



Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Curriculum Osorako Kanpaina.

Elkarrizketetako hainbat erantzunetan aipatu zen esperientzia oro bistartzeko beharra. Horrek berekin dakar batetik, esperientzia bakoitzaren berezitasuna aitortzea eta, bestetik, taldeen arteko kidetasunak nahiz ezberdintasunak balioestea. Izan ere, taldeen arteko ezberdintasunak elkar osatzeko balia daitezke. Horixe da ESSCOK nazioarteko foro eta topaketetan parte hartzearen garrantziaren gakoa. Foro horien artean dago Ekonomia Eraldatzaileen Munduko Foro Soziala. Bertako partaide izateak indartu egin gaitu eta horregatik ezinbestekotzat jotzen dugu parte hartzen jarraitzea. Badakigu topaketa horiek ESSCOK eta OBU jakitera emateko egoera garrantzitsuak direla, eta esperientzia- eta proposamen-sorta zabaltzeko ere balio dutela.

Komunikazioari dagokionez, jardunbide hauen garrantziaz jabetu gara: ESSCOKren hileroko bileretan interpreteak izatea; bilerak berriro ikusteko bideoak irisgarriagoak izatea edo, behintzat, azpitoluludunak izatea hainbat hizkuntzatan ikusteko.

Ongi Bizitzeko Unibertsitatea

Lehen aipatu bezala, UBV ESSCOKren ardatzetako bat da. Haren proposamenen artean nabarmentzekoa da material didaktikoen, pedagogia-erreminten eta ikasketa-metodologiaren sorkuntza. Sorkuntza horiek ikasteko eta jakintzak trukatzeko era berriak imajinatzen laguntzen dute. Aipatutako material didaktikoei pertsona bakoitza lanean ari den komunitateetan ESSren erremintak hobeto partekatzeko baliagarri izan daitezke. Bestalde, materialak sortuz eta jakintzak trukatzuz herrien memoria eta historia babesten dira. Bizi ditugun garai larri hauetan, datozen belaunaldientzako jakintzak babestea garrantzi handiko ekintza da.

Taller de costureros bezalako metodologiak oso esanguratsuak izan dira erabiltzen duten sormenagatik eta leku gehiagotan errepika daitezkeelako. Eragin handia izan dezaketen beste ekimen batzuk ikasgela biziak eta Herri Ekonomia Eraldatzaileak Doktorego Alternatiboa dira. Kontzeptu horietan gehiago sakondu behar da eta prozesuei jardunetik heldu.

“Ikasgela bizi” deitzen diegu ESSren ekintza praktikoetatik abiatuta ezagutza lortzen duten espazio guztiei. Esate baterako, baratzeak; komunitate indigenen ezagutza transmititzeko guneak (Mexikoko *milpa de aprendizaje* deituriko arto-lursailak adibidez); kooperatibak eta trukaketa-azokak edo merkatu solidarioak. Kontzeptu horren garrantzia ikasgela instituzionaletatik kanpo sortzen diren jakintzak balioestean datza. Ikasgela biziak jakintza biziak dituzte haien baitan; etengabe eraldatzen diren eta jardunaren bidez (ahoz edota idatziz) transmititzen diren ekintzak. Ikasgela horietan irakasleak irakasle ere badira momentu batzuetan.

Kontzeptu horren eta Herri Ekonomia Eraldatzaileak Doktorego Alternatiboaren proposamenaren bidez, Ongi Bizitzeko Unibertsitatea ESSn parte hartzen dutenen jakintzen aitortpenerako bidea sortzen ari da.



Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Curriculum Osorako Kanpaina.



Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Curriculum Osorako Kanpaina.

ESSren norabidea

Munduak lehenbailehen behar ditu ESSCOKk eta OBUk biltzen dituzten jakintzak. Herriek eta lurraldeek, batez ere hegoaldekoek, jasaten duten indarkeria sistematikotik irteteko, nahitaezkoa da epistemologia aldatzea. Epistemologia aldaketa bereziki garrantzitsua da geure burua gizaki gisa ikusteko moduan, harremanak sortzeko eran, bizitokiarekin harremanetan jartzeko eran, eta geure historia eta ikaskuntza ulertzeko moduan.

Munduko egoera larria bada ere, bertan ongi bizitzea ahalbideratuko digun ESS baterantz jo behar dugu. Garrantzitsua da bide horretan ematen dugun paso bakoitzean elkarri begietara begiratzea eta adeitasunez eta horizontaltasunez lan egitea. Izan ere, eraiki nahi dugun mundua adeitsua eta horizontala da.

